

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

228

1941/2022 EBAZPENA, abenduaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutako eta baztertutako zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Anatomia Patologikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako/lanpostu funtzionaleko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako/lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Anatomia Patologikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoria sartzen baita (2021eko azaroaren 8ko EHAA 221. zk.); hain zuzen, prozesu hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren bidez (azararen 30eko EHAA 238. zk.), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko eskaintza argitaratu zen, Osakidetza zerbitzu-erakundeetan destinoa duten A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako/lanpostu funtzionaletarako. Gero, ebazpen hori abenduaren 14ko 570/2021 Ebazpenaren bidez aldatu zen (abenduaren 28ko EHAA 258 zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 27ko 844/2022 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutako eta baztertutako zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Anatomia Patologikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako / lanpostu funtzionaleko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten 1307/2021 Ebazpenaren I. eranskineko A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldearen kategorien/lanpostu funtzionalen zerrendan dagoen Anatomia Patologikoko FEM kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, Ebazpen honen I. eranskinaren bidez, A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Anatomia Patologikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko onartutako behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino

horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren II. eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Hirugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Laugarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaia, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileak, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen bada, hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAA-n destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenetan badago.

Bostgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Seigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2023ko urtarrilaren 16a, astelehena

I. ERANSKINA

513/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***7473**	Moreno Nieto, Virginia	67,1736
2	***4812**	Velasco Benito, Veronica	53,8376
3	***7217**	Gaafar Eleraky, Ayman	50,3384
4	***9484**	Cancho Galan, Goikoana	49,8368
5	***9391**	Mosteiro Gonzalez, Lorena	47,7393
6	***2053**	Solano Iturri, Jon Danel	41,6685
7	***7793**	Muñiz Unamunzaga, Gorka	17,3368

2023ko urtarrilaren 16a, astelehena

III. ERANSKINA
513/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA
LANPOSTU FUNTZIONALA: FAKULTATIBO ESP. ANATOMIA PATOLOGIKAKO MEDIKUA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***7473**	Moreno Nieto, Virginia	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak - Gasteiz-Vitoria-Gasteiz / Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin	2	
***4812**	Velasco Benito, Veronica	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7217**	Gaafar Eleraky, Ayman	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	
***9391**	Mosteiro Gonzalez, Lorena	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***2053**	Solano Iturri, Jon Danel	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7793**	Muñiz Unamunzaga, Gorka	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea-Anatomia Patologikoko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	